

## *ENE ZUHAITZA*

Ene Euskal Herria  
zuhaitz trinko eta sendoa  
sustrai luzez heldua  
lurraren barrenerantz.  
Hostoz hornitua  
7 adatsez heldua.  
Sustraiak lurretik  
atera nahiean zabilitza  
independentzia eta askatasuna  
lortu nahiean.  
Zure enborrean  
hainbeste urtetako borroka  
nabari zaizu  
arima eta sentimenduekin  
egindako borroka  
luze eta indartsua.  
Itxaropenez beteriko guda  
betiko aske  
izango zinenaren ametsa  
egi bihurtzeko irrikaz.  
Bidean oztopo asko  
aurkitu dituzu  
harriak, eroritako arbolak...  
Bide hori

ez da erraza izan,  
enbor zatiak  
galdu dituzu,  
adats batzuk  
moztu nahi izan dizkizute,  
hosto batzuk  
haize bortitzek  
eraman dizkizute.  
Baina eutsi zuhaitza  
gogoratu  
nor zinen, nor zaren  
eta nor izan nahi duzun.  
Ez galdu itxaropena  
zure ametsa  
egi bihurtuko dugu  
denon artean  
borrokatuz  
elkar lagunduz  
gure arbasoak oroituz  
sentitzen duguna defendatuz  
gure ondorengoengan pentsatuz  
ez etsiz.  
Sustraiak  
defendatuko ditugu,  
enborra  
den bezala

mantenduko dugu,  
adats bat bera ere  
ez zaizu sekula eroriko.

Oztopoak pasatuz,  
harresiak gaindituz,  
eskuratuko dugu.

Gure eskubideak

lortu

gure lurrari

merezi duen ohorea

eman

euskal izaera

erakutsi

gure hizkuntza

hitz egin

gure kultura

zabaldu

Euskal Herria

maitatu!

Ene maite, Euskal Herria.